Aipatutako Hitzarmena sinatu zenetik denbora luzea igaro denez, bai eta denbora horretan izandako lege-berrikuntzak ere, bi alderdiek onartzen dute beharrezkoa dela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren artean beste kudeaketa gomendio bat egitea.

Dado el largo periodo de tiempo transcurrido desde la firma del citado Convenio así como las novedades legislativas producidas durante el mismo, ambas partes coinciden en reconocer la necesidad de instrumentar una nueva encomienda de gestión entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián.

Horren arabera, Donostiako Udalak, Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuaren bitartez, kudeaketa-gomendioa eraginkortasunez egiteko konpromisoa hartu du, horretarako bideratutako baliabide publikoak optimizatuz.

En virtud de la misma el Ayuntamiento de San Sebastián, a través de su Servicio de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento, se compromete, a llevar a cabo la encomienda de gestión de forma eficaz, optimizando los recursos públicos destinados para ello.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.750.000 euro ordainduko dizkio Donostiako Udalari 2025. urterako, erabaki honen xede den udalaz gaindiko kudeaketa-gomendioaren egikaritza konpentsatzeko.

Por su parte, la Diputación Foral de Gipuzkoa, en orden a compensar el ejercicio de la encomienda de gestión supramunicipal objeto del presente acuerdo, abonará al Ayuntamiento de San Sebastián la cantidad de 2.750.000

euros para el año 2025.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2025eko martxoaren 18an, erabaki zuen Donostiako Udalari agintzea Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Pasaiako mendebaldeko udalerrien prebentzio, su itzalketa eta salbamendu zerbitzuaren kudeaketa, eta, horretarako, foru-aldundiak baliabide propioak izatea, zerbitzu hori modu subsidiarioan emateko eskumena alde batera utzi gabe.

Para ello, el consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa, con fecha de 18 de marzo de 2025, ha acordado encomendar al Ayuntamiento de San Sebastián la gestión del servicio de prevención, extinción de incendio y salvamento a los municipios de Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Astigarraga, Urnieta y la zona oeste de Pasaia y sin perjuicio de la competencia de éstos, en orden a garantizar subsidiariamente la prestación de dicho servicio, en tanto la Diputación Foral no disponga de medios propios idóneos para ello.

123.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, toki-korporazioaren osoko bilkurari dagokio eginkizunak edo jarduerak beste herri-administrazio batzuei eskualdatzea, bai eta beste administrazio batzuek egindako eskuordetzeak edo kudeaketa gomendioak onartzea ere, legez nahitaez ezarritakoak ez badira.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 123.1.j) la transferencia de funciones o actividades a otras Administraciones públicas, así como la aceptación de las delegaciones o encomiendas de gestión realizadas por otras Administraciones, salvo que por ley se impongan obligatoriamente, corresponden al Pleno de la Corporación Local.

Horregatik guztiagatik, akordio hauek proposatzen dira Udalbatzarrari:

Por cuanto antecede, se tiene a bien proponer al Excmo. Ayuntamiento Pleno, la adopción de los siguientes:

AKORDIOAK

ACUERDOS

LEHENENGO: Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa-agindua, Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Pasaiako mendebaldeko udalerriei suaren prebentzio, itzaltze eta salbamendu zerbitzua kudeatzeko, betiere udalerri horien eskumenari kalterik egin gabe, subsidiarioki zerbitzu hori ematea bermatzeko, Foru Aldundiak horretarako baliabide propio egokirik ez duen bitartean.

PRIMERO: Aceptar la encomienda de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la gestión del servicio de prevención, extinción de incendio y salvamento a los municipios de Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Astigarraga, Urnieta y la zona oeste de Pasaia y sin perjuicio de la competencia de éstos, en orden a garantizar subsidiariamente la prestación de dicho servicio, en tanto la Diputación Foral no disponga de medios propios idóneos para ello.

BIGARREN: Mandatua formalizatzeko, erabaki

SEGUNDO: Aprobar el convenio que se adjunta

honi eranskin gisa erantsi zaion hitzarmena onestea.

al presente acuerdo como anexo para la formalización de la encomienda.

HIRUGARREN: Diru-sarrera 2025eko aurrekontuko "Diru-sarrerak" izeneko 420.99.01 partidari egoztea.

TERCERO: Imputar el ingreso a la Partida 420.99.01 "Ingresos" del Presupuesto 2025.

LAUGARREN: Segurtasun, Suhiltzaile eta Babes Zibileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea kudeaketa-agindua formalizatzeko hitzarmen hori Donostiako Udalaren izenean sinatzeko, hitzarmen horren bosgarren klausulan aurreikusitako Jarraipen Batzordearen ordezkariak izendatzeko, etorkizunean hitzarmenaren balizko luzapenak onartzeko eta, oro har, hura zehazki betetzeko egoki diren egintza, erabaki eta ebazpen guztiak burutu ditzan.

CUARTO: Facultar al Concejal Delegado de Seguridad, Bomberos y Protección Civil para firmar en nombre del Ayuntamiento de San Sebastián el citado convenio para formalizar la encomienda, designar a los representantes de la misma en la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula quinta del citado convenio, aprobar posibles futuras prórrogas del mismo y para adoptar en general, cuantos actos, decisiones y resoluciones resulten convenientes para su exacto cumplimiento.

BOSGARREN: Akordio hau Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea.

QUINTO: Notificar el presente acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostia, 2025eko martxoaren 31a

San Sebastián, a 31 de marzo de 2025

PREBENTZIO, SU ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZERBITZUKO INSPEKTORE BURUA
PERU MAC GRACH AMONDARAIN

PREBENTZIOA, SU ITZALKETA ETA SALBAMENDU ZERBITZUKO ZUZENDARIA
ANDER GOMEZ VESGA

SEGURTASUN, SUHILTZAILE ETA BABES ZIBILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
MARTIN IBABE ECEIZA”.

Eztabaida hasita, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Jabier Vitoria Roma jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Martin Ibabe Eceiza, D. Victor Lasa Briz, D. Jorge Mota Iglesias y D. Jabier Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de

la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**KONTRATAZIOAREN KONTROLERAKO ETA JARRAIPENERAKO BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN**

**8. 2024 ekitaldiari dagokion urteko Memoriaren berri ematea.**

“UDALBATZARI

Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.

Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan publizitatea, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.

Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.

**8. Dar cuenta de la Memoria anual correspondiente al ejercicio 2024.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Titulo IX las Comisiones del Pleno y de modo especifico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.

La Comisión Especial es el Órgano de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia, objetividad, transparencia y eficacia de la contratación.

La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.

Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

De conformidad con dichas Normas, el Presidente elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.

Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.

De la Memoria aprobada por la Comisión se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.

La Memoria conteniendo, en su caso, consideraciones y propuestas de mejora, se elevará al Ayuntamiento Pleno para su conocimiento.

Batzordeak 2025eko martxoaren 28ko bilkuran 2024ko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen aho batez, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisia.

La Comisión, en sesión celebrada el día 28 de marzo de 2025, ha aprobado por unanimidad la Memoria correspondiente al Ejercicio 2024 comprensiva del análisis de los contratos objeto de control del citado ejercicio.

Horiek horrela direla, Batzordeak onartutako memoria horren berri Gobernu Batzarrari eta Udalbatzari eman behar zaio. Azaldutakoagatik:

Conforme a lo indicado, de la Memoria aprobada en la Comisión debe darse cuenta a la Junta de Gobierno Local y al Ayuntamiento Pleno. Por lo expuesto:

Batzordeak 2024ko ekitaldiari dagokionez onartutako Memoriaren berri eman da. Memoria horretan Donostiako Udalaren Tokiko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Kontrol eta Jarraipenerako Batzorde Bereziak egindako jarduketak jasotzen dira. Batzorde hori Udalak berak, haren erakunde autonomoek, enpresa-erakunde publikoek eta udal-sozietate publikoek osatzen dute.

Se da cuenta de la Memoria aprobada por la Comisión correspondiente al Ejercicio 2024 en la que se recogen las actuaciones realizadas por la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación del Sector Público Local del Ayuntamiento de San Sebastián integrado por el propio Ayuntamiento, sus Organismos Autónomos, sus Entidades Publicas Empresariales y las Sociedades Públicas Municipales.

Izpta.: Charo García
Udalaren Barruko Kontolaren Arduradun Kudeatzailea

Izpta.: RICARDO BURUTARAN
Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziaren Burua.
Presidente de la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación”.

Eztabaida hasita, Rikardo Burutaran Ferre jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Kerman Orbegozo Uribe jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D. Kerman Orbegozo Uribe, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA**

**9. 2024 ekitaldiari dagokion Urteko Txostenaren berri ematea.**

"UDALBATZARI

IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIAREN URTEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 132. artikuluak nahiz Udalbatzaren Organo Araudiko 141. eta 142. artikuluek agintzen duten bezala, honekin batera doa Iradokizun eta Erreklamazio Batzordearen txostena, 2024koa, Udalbatzari aurkeztu eta haren jakinaren gainean jartzeko.

**COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES**

**9. Dar cuenta del Informe Anual correspondiente al ejercicio 2024.**

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

DANDO CUENTA DEL INFORME ANUAL DE LA COMISIÓN DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 132 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local y en los artículos 141 y 142 del Reglamento Orgánico de Pleno, adjunto remito el Informe de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones correspondiente al año 2024, para su elevación al Pleno de la Corporación, a fin de dar cuenta del mismo.

Donostia, 2025eko apirilaren 9an.

BATZORDEBURUA /
LA PRESIDENTA

Itziar Iturri Arrazola".

Eztabaida hasita, Itziar Iturri Arrazola andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Izar Hernando Ibero andreak eta Ana Lopez Loiarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D.ª Itziar Iturri Arrazola, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Izar Hernando Ibero y D.ª Ana López Loiarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

**---------------**

**II.**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II.**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**10. Bateratutako Mozio Arrunta, EAJ/PNV, EH BILDU, Donostiako Sozialistak PSE-EE eta Elkarrekin Donostia Taldeek aurkeztua, La Cumbre jauregiaren lagapenari buruzkoa.**

"Jon Insausti Maisterrenak, EAJ/PNV udal

**10. Moción Ordinaria conjunta, presentada por los Grupos EAJ/PNV, EH BILDU, Socialistas Donostiarras PSE-EE y Elkarrekin Donostia, sobre la cesión del Palacio de La Cumbre.**

"Jon Insausti Maisterrena, portavoz del grupo

taldearen bozeramaileak, Ane Oyarbide Ochoak, PSE-EE udal taldearen bozeramaileak, Victor Lasa Brizek, Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak eta Juan Karlos Izagirre Hortelanok, EH Bildu Udal taldearen bozeramaileak, Osoko Bilkuraren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babesean, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu dute, Donostiako Udalari La Cumbre jauregia lagatzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 19ko 20/2022 Legeak, Memoria Demokratikoari buruzkoak, xedapen gehigarri bat zuen, hemezortzigarrena, gure hiriari zuzenean eragiten ziona.

Zehazki, xedapen gehigarri horrek honako hau zioen: *"Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, La Cumbre jauregia Donostiako Udalari lagatzeko hitzarmen bat sustatuko da, memoria demokratikoa berreskuratu, babestu eta zabaltzeko lege honen berezko helburuarekin bat datozen jardueretarako"*.

Gure hirian herritarren iritzi-korronte handia dago La Cumbre jauregia lagatzeko prozesu hori aktibatzearen alde, Donostiako Udalbatzak behin eta berriz onartutako erabakietan islatzen dena, bai eta Aieteko eremuko auzo-kolektiboek, Lantxabe elkarteak, besteak beste, ildo horretan egindako aldarrikapenetan ere.

Horregatik, La Cumbre jauregia bezalako eraikin enblematiko bat Donostiako Udalari lagatzeko prozesua ahalik eta azkarren aktibatzeko beharrak justifikatzen du, ekimen hau sinatu duten taldeen iritziz, honako

municipal EAJ/PNV, Ane Oyarbide Ochoa, portavoz del grupo municipal PSE-EE, Victor Lasa Briz, portavoz del grupo municipal Elkarrekin Donostia y Juan Karlos Izagirre Hortelano, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, relativa a la cesión al Ayuntamiento de Donostia del palacio de La Cumbre.

JUSTIFICACIÓN

La Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática, contenía una disposición adicional, la decimoctava, con afección directa sobre nuestra ciudad.

Concretamente, la citada disposición adicional dictaminaba que *"en el plazo de un año de la entrada* en vigor de la presente ley, se promoverá un convenio *de cesión del palacio de La Cumbre al Ayuntamiento de Donostia, para actividades acordes con la finalidad propia de esta ley de recuperación, salvaguarda y difusión de la memoria democrática".*

Existe en nuestra ciudad una amplia corriente de opinión ciudadana favorable a activar este proceso de cesión del palacio de La Cumbre, reflejada en los repetidos pronunciamientos aprobados por el Pleno municipal donostiarra, así como las reivindicaciones en este sentido realizadas por colectivos vecinales del área de Aiete, como la asociación Lantxabe, entre otros.

Por ello, la necesidad de activar con la mayor premura posible el proceso de cesión al Ayuntamiento de Donostia de un edificio tan emblemático como el palacio de La Cumbre justifica, a juicio de los grupos firmantes de esta

iniciativa, la presentación de la siguiente

MOZIO ARRUNTA

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Espainiako Gobernuari eskatzen dio izapidetu dezala ahalik eta eperik laburrenean La Cumbre jauregia udal honi lagatzea, Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarria betez.

2.- Donostiako Udalbatzak erabaki du mozio honen edukia Gipuzkoako Foru Aldundiari, Batzar Nagusiei, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari helaraztea, ahalik eta lasterren bultzatzeko La Cumbre jauregia udal honi lagatzea, Memoria Demokratikoari buruzko urriaren 19ko 20/2022 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak jasotzen duen bezala.

Donostian, 2025eko apirilaren 3a

Jon Insausti Maisterrena
EAJ/PNV taldeko bozeramailea

Ane Oyarbide Ochoa
PSE-EE taldeko bozeramailea

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu taldeko bozeramailea

Victor Lasa Briz
Elkarrekin Donostia taldeko bozeramailea".

MOCIÓN ORDINARIA

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno de España a tramitar en el plazo más breve posible la cesión del palacio de La Cumbre a este Ayuntamiento, en cumplimiento de la Disposición adicional decimoctava de la Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián acuerda dar traslado a la Diputación Foral y las Juntas Generales de Gipuzkoa, así como al Parlamento vasco y al Gobierno Vasco, del contenido de esta moción, en aras a impulsar a la mayor brevedad posible la culminación de la cesión del palacio de La Cumbre a este Ayuntamiento, tal y como recoge la Disposición adicional decimoctava de la Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática.

San Sebastián, 3 de abril de 2025

Jon Insausti Maisterrena
Portavoz del grupo EAJ-PNV

Ane Oyarbide Ochoa
Portavoz del grupo PSE-EE

Juan Karlos Izagirre Hortelano
Portavoz del grupo EH Bildu

Victor Lasa Briz
Portavoz del grupo Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Alkate-Udalburuak, Iñigo Garcia Villanueva jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak eta Jorge Mota Iglesias jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as el Alcalde-Presidente, D. Iñigo García Villanueva, D.ª Arantza González García, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano y D. Jorge Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (8) EAJ/PNV, (7) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**11. Mozio Arrunta, PP Taldeak aurkeztua, Dbuseko doako trasbordoen kostuari buruzkoa.**

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Dbusen doako bus-aldaketen kostua dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Dbus Donostiako garraio publikoko udal konpainiak funtsezko zeregina betetzen du hiriko mugikortasunean, eta zerbitzu eraginkorra, irisgarria eta jasangarria bermatzen du. Hala ere, enpresak finantza-egoera kezkagarri bati egin behar dio aurre, 27.824.334 €-ko zor metatua baitu, udal honek

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el coste de los transbordos gratuitos en Dbus.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, sobre el coste de los transbordos gratuitos en Dbus.

JUSTIFICACION

Dbus, la compañía municipal de transporte público de San Sebastián, desempeña un papel esencial en la movilidad urbana de la ciudad, garantizando un servicio eficiente, accesible y sostenible. Sin embargo, la empresa se enfrenta a una preocupante situación financiera, con una deuda acumulada de 27.824.334 € que es

estaltzen eta ordaintzen duena.

Azken urtean, Dbusek 3.610.844 doako bus-aldaketa egin ditu, hau da, bidaia guztien % 10. Horrek 6.799.575 €-ko kostua ekarri die donostiarrei, hau da, Dbusen defizitaren (27.824.334 €) laurdena. Konpainiak kostu handia hartzen du bere gain erabiltzaileen mesedetan, baina Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA) ez du berdin jokatzen.

Egungo tarifa-sistemak garraio publikoaren erabilera sustatzen du, Dbus lineen eta lurraldeko beste garraio-operadore batzuen arteko doako edo hobaridun ontzi-aldaketen bidez. Ontzat ematen dugu ontzi-aldaketak doakoak izatea herritarrentzat, baina, beste hobari batzuk bezala, goragoko administrazioek finantzatu beharko lituzkete. Donostian, gastu hori Dbusek bakarrik hartzen du bere gain, eta horrek enpresaren finantza-egonkortasuna arriskuan jartzen du, eta, bestalde, zerbitzua hobetzeko, jasangarritasuna bermatzeko eta flota modernizatzeko inbertsio-ahalmena mugatzen du.

Garraio-aldaketen finantzazioan dagoen aldeak esan nahi du ez dela berdin jokatzen donostiarrekin eta Udalarekin, batetik, eta beste batzuekin, bestetik, Udalak baliabide gehiago bideratu behar baititu beste herri batzuetan GGLAk bere gain hartzen duen defizita estaltzeko. Egoera hori jasanezina da, eta zuzendu egin behar da, Donostia eta donostiarrak zigortuko ez dituen bidezko finantzazio-eredu bat bermatzeko.

Gainera, trantsizio ekologikoko eta ibilgailu pribatuaren alternatiba gisa garraio publikoa bultzatzeko testuinguru batean, funtsezkoa da

cubierta y aportada por este Ayuntamiento.

En el último año Dbus ha realizado 3.610.844 transbordos gratuitos, lo que representa el 10% de todos los viajes. Esto ha costado a los donostiarras 6.799.575 €, lo que supone una cuarta parte del déficit de Dbus, que es de 27.824.334 €. Un coste importante de dinero que la compañía asume en beneficio de los usuarios, pero no así la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

El actual sistema tarifario fomenta el uso del transporte público mediante transbordos gratuitos o bonificados entre líneas de Dbus y otros operadores de transporte en el territorio. Estamos de acuerdo con que los transbordos sean gratuitos para los ciudadanos, pero, al igual que otras bonificaciones, deberían ser financiados por las administraciones superiores. En San Sebastián este gasto recae exclusivamente sobre Dbus, comprometiendo la estabilidad financiera de la empresa y limitando su capacidad de inversión en mejoras del servicio, sostenibilidad y modernización de la flota.

La disparidad en la financiación de los transbordos genera un agravio comparativo para la ciudadanía donostiarra y para el propio Ayuntamiento, que debe destinar mayores recursos municipales a cubrir un déficit que, en otras localidades, es asumido por la ATTG. Esta situación es insostenible y debe corregirse para garantizar un modelo de financiación equitativo que no penalice a San Sebastián y a los donostiarras.

Además, en un contexto de transición ecológica y de impulso del transporte público como alternativa al vehículo privado, es fundamental

administrazio arduradunek sistemaren jasangarritasun ekonomikoarekiko konpromisoa indartzea. GGLAk, Gipuzkoako garraioa koordinatzen duen erakundea den aldetik, mugikortasun-sistemaren finantzazioa bidezkoa eta proportzionala izatea bermatu behar du lurralde osoan.

Horregatik, eskatzen dugu Donostiako Udalbatzak formalki eska diezaiola Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari gaur egun Dbusek ordaintzen dituen bus-aldaketen kostua bere gain hartzeko eta konpentsazio-mekanismo bat ezartzeko, garraioen udal enpresaren finantza-karga arindu ahal izateko.

Horiek horrela direla,

MOZIO ARRUNT hau aurkezten dugu:

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari (GGLA) hertsatuki eskatzen dio bere gain har dezala Dbusen garraio publikoko sisteman egiten diren bus-aldaketen kostua, udal enpresak gaur egun jasaten duen finantza-karga arintzeko.

2. Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari konpentsazio ekonomikorako mekanismo bat sortzeko, Donostiako garraioaldaketak Gipuzkoako gainerako lurraldeek dituzten baldintza berdinetan finantzatuko direla bermatzearren.

3. Donostiako Udalbatzak exijitzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari elkarrizketa-esparru bat ezar dezatela Donostiako Udalarekin eta Dbusekin, epe laburrean konponbide bideragarri eta jasangarri bat

que las administraciones responsables refuercen su compromiso con la sostenibilidad económica del sistema. La ATTG, como entidad que coordina el transporte en Gipuzkoa, tiene la obligación de garantizar que la financiación del sistema de movilidad sea justa y proporcional en todo el territorio.

Por ello, solicitamos que el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián inste formalmente a la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa a asumir el coste de los transbordos que actualmente paga Dbus y a establecer un mecanismo de compensación que permita aliviar la carga financiera de la empresa municipal de transportes.

Por todo ello, presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián Insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATG) a asumir el coste de los transbordos en el sistema de transporte público de Dbus, con el objetivo de aliviar la carga financiera que actualmente soporta la empresa municipal.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita a la ATTG la creación de un mecanismo de compensación económica que garantice que los transbordos en San Sebastián sean financiados en igualdad de condiciones con el resto del territorio guipuzcoano.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián exige a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la ATTG que establezcan un marco de diálogo con el Ayuntamiento de San Sebastián y Dbus para acordar una solución viable y sostenible en el corto plazo.

adosteko.

4. Donostiako Udalbatzak hitz ematen du erabaki honen berri emango diela Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkaritza duten talde politikoei, Donostiako garraio publikoaren jasangarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartze aldera.

Donostian, 2025eko apirilaren 2a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularraren Udal Taldeko bozeramailea".

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a dar traslado de este acuerdo a la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa y a los grupos políticos con representación en Juntas Generales de Gipuzkoa, con el fin de que se adopten las medidas necesarias para garantizar la sostenibilidad del transporte público en San Sebastián.

Donostia, 2 de abril de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular".

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Arantza González García y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (7) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (7) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15- (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 7- EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15- (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 7- EH BILDU.**

---------------

**12. Mozio Arrunta, PP taldeak aurkeztua, Ibilgailuen Azterketa Teknikoari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako automobil-zaleek Urnietara edo Iruna joan behar izaten dute Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) pasatzera. Automobil-zaleentzat deserosoa da udalerritik atera behar izatea azterketa hori egitera, baina ez dakar arriskurik gidarientzat. Moto-zaleentzat ez da horrela, ordea; izan ere, zilindrada txikikoak dira Donostiako moto gehienak, eta Urnietaraino joan behar izaten dute gidariek, arrisku batzuk pasatuz, zenbaitetan, eta oraindik eta gehiago Donostiako motozikleta-zale asko hirian ibiltzen ohituta daudelako baina ez errepide nagusian edota

**12. Moción Ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre Inspección Técnica de Vehículos.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, sobre Inspección Técnica de Vehículos.

JUSTIFICACIÓN

Los propietarios de vehículos donostiarras se ven obligados a desplazarse hasta Urnieta o Irún para cumplir con el requisito legal de superar satisfactoriamente la Inspección Técnica de Vehículos (ITV). Para los propietarios de coches resulta incómodo salir de su término municipal para pasar esa inspección, pero no supone un peligro para el conductor. No es el caso de las motocicletas de los vecinos donostiarras, en su mayoría de pequeña cilindrada, muchas de ellas ciclomotores, cuyos propietarios tienen que desplazarse hasta Urnieta generando situaciones potencialmente peligrosas, más si

saihesbidean.

Donostian ezin bada ere, Donostiaren tamainako beste hiri batzuetan, IATa bizi diren udalerriaren eremu geografikoan bertan egiteko modua daukate moto-zaleek.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jartzeko bidea Donostiako hiri-eremuan establezimendu iraunkor bat sortzeko, Donostiako motozikletazaleek ibilgailuen IATa hiri-eremuan egin ahal izateko.

Donostia, 2025eko apirilaren 2a

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularraren Udal Taldearen bozeramailea”.

cabe si tenemos en cuenta que muchos de los conductores de motocicletas donostiarras son conductores urbanos, y no están acostumbrados a circular por la general o la variante.

Es una situación inédita, ya que en otras ciudades del tamaño de San Sebastián, los motocilistas tienen la opción de hacer la ITV dentro del ámbito geográfico del municipio en el que viven.

Por todo ello, presentamos la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a facilitar la creación de un establecimiento de carácter permanente dentro del ámbito urbano de Donostia-San Sebastián en el que los motociclistas donostiarras puedan obtener la ITV de sus vehículos.

San Sebastián, a 2 de abril de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Olatz Yarza Garagorri andreak eta Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Ane Oyarbide Ochoa, D.ª Olatz Yarza Garagorri y D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - EH BILDU, UDALBATZA ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**UNANIMIDAD.**
**ABSTENCIONES: 2 - EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

## II.2

## KONTROL MOZIOAK

## II.2

## MOCIONES DE CONTROL

**II.2.1. Kontrol Mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, taxi zerbitzuaren elektrifikazioari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko bozeramaile Victor Lasa jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udaltalde horrek batzordeetan mugikortasun jasangarriaren eta trantsizio ekologikoaren inguruan aurkeztutako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak mugikortasun-eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko erronka eta erantzukizuna ditu, isuri kutsatzaile gutxiago eta energia-efizientzia handiagoa izango dituen mugikortasun bat lortzeko. Konpromiso horren barruan, garraio publikoko ibilgailuen flotak heinean-heinean elektrifikatzea helburu komuna da tokiko, autonomia-erkidegoko eta Europako mailan.

Taxi-zerbitzua hiri-mugikortasunaren funtsezko elementu bat da. Gero eta taxilari gehiagok egiten dute ibilgailu elektrikoen aldeko apustua, bai ingurumen-arrazoiengatik, bai arrazoi

**II.2.1. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la electrificación del servicio de taxi.**

“Dr. Victor Lasa, portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL derivada de las interpelaciones presentadas por este grupo municipal en el ámbito de la movilidad sostenible y la transición ecológica en comisión.

JUSTIFICACIÓN

Donostia / San Sebastián tiene el reto y la responsabilidad de avanzar hacia un modelo de movilidad más sostenible, con menores emisiones contaminantes y mayor eficiencia energética. Dentro de ese compromiso, la electrificación progresiva de las flotas de transporte público es un objetivo compartido a nivel local, autonómico y europeo.

El servicio del taxi es un componente fundamental de la movilidad urbana. Cada vez son más los y las taxistas que apuestan por vehículos eléctricos, tanto por razones

ekonomikoengatik. Hala ere, trantsizio hori egiteko oztopo nagusietako bat da Udalak ez duela zuzeneko laguntza ekonomikorik ematen, eta ez dagoela ibilgailuak azkar kargatzeko azpiegitura egokirik, batez ere taxiek ohiko geldialdiak egiten dituzten puntu estrategikoetan.

medioambientales como económicas. Sin embargo, uno de los principales frenos para esta transición es la falta de ayudas económicas directas por parte del Ayuntamiento y la falta de infraestructura adecuada de recarga rápida, especialmente en puntos estratégicos donde los taxis realizan paradas habituales.

Administrazio publikoek emandako laguntza ekonomikoak tresna eraginkorrak dira ibilgailu-floten elektrifikazioa errazteko. Birkarga-puntuei dagokienez, horrelakoak instalatzeko ezaugarri egoki batzuk dituzte taxi-geralekuek: hiri osoan modu ekitatiboan banatuta daude, sarbide errazeko lekuetan kokatuta daude eta espazio erreserbatua dute. Horrela, taxiaren sektoreko profesionalek modu eraginkorrean erabili ahal izango lituzkete, alferrik desbideratu beharrik gabe eta denbora operatiborik galdu gabe.

Las ayudas económicas desde las administraciones públicas han demostrado ser una herramienta eficaz a la hora de facilitar la electrificación de flotas. En cuanto a los puntos de recarga, las paradas de taxi reúnen una serie de características idóneas para su instalación: se distribuyen de forma equitativa por toda la ciudad, están en lugares de fácil acceso, y cuentan con espacio reservado. Permitirían así un uso eficaz por parte de profesionales del taxi sin desvíos innecesarios ni pérdidas de tiempo operativo.

Taxi-geralekuetan birkarga azkarreko puntuak instalatzeak, gainera, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planaren helburuak betetzea erraztuko luke, bai eta Donostia Klima Ekintza Plana eta Donostiako Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana betetzea ere.

La instalación de puntos de recarga rápida en paradas de taxi, además, favorecería el cumplimiento de los objetivos del Plan de Movilidad Urbana Sostenible, así como del propio Plan de Acción por el Clima y la Energía Sostenible de Donostia.

Hori dela-eta, hau da gure

Por todos estos motivos, se presenta la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2025a amaitu baino lehen txosten tekniko bat egin eta argitara dezala, taxiaren sektoreko profesionalek ibilgailu elektrikoak eskuratzea sustatzera eta erraztera bideratutako mekanismoak –ekonomikoak, fiskalak, logistikoak edo beste edozein motatakoak– aztertuko dituena.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a la realización y publicación, antes del fin de 2025, de un informe técnico que estudie diferentes mecanismos —económicos, fiscales, logísticos o de cualquier otra índole— orientados a incentivar y facilitar la adquisición de vehículos eléctricos por parte de los profesionales del

sector del taxi.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2025. urtea baino lehen azterlan tekniko bat egin eta argitara dezala, taxi-geralekuetan ibilgailu elektrikoak azkar kargatzeko puntuak instalatzearen bideragarritasunaren ingurukoa, irizpide objektiboetan oinarrituta.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar y publicar, antes del de 2025. un estudio técnico sobre la viabilidad de instalar puntos de recarga rápida para vehículos eléctricos en paradas de taxi ya existentes, basándose en criterios objetivos.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiriko taxilarien elkarteekin elkarrizketakanal bat ezar dezala, azterlan horien garapenean haien ekarpenak txertatzeko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a establecer un canal de diálogo con las asociaciones de taxistas de la ciudad, con el objetivo de incorporar sus aportaciones al desarrollo de estos estudios.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala lanorduetan karga-puntuak taxi elektrikoek soilik erabiltzeko aukera, era horretan, taxilarien kolektiboari puntu horien erabilera eraginkorra bermatuz.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a valorar la posibilidad de que dichos puntos de recarga sean de uso exclusivo para taxis eléctricos durante su jornada laboral, garantizando un acceso eficiente para el colectivo.

5. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kanpoko finantzaketa-bideak (Europakoak, estatukoak edo autonomikoak) azter ditzala azpiegitura hori ezartzeko.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a explorar vías de financiación externas (europeas, estatales o autonómicas) para la implantación de esta infraestructura.

6. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio 2025a amaitu baino lehen kronograma bat diseina dezala, taxiak azkar kargatzeko sare bat garatzeko epeak, helburuak eta irizpide objektiboak ezarriko dituena.

6. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que antes del fin de 2025 diseñe un cronograma que establezca plazos, objetivos y criterios objetivos para el desarrollo de una red de recarga rápida para taxis

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Victor Lasa Briz jaunak, Vanessa Velez de Pablos andreak, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Victor Lasa Briz, D.ª Vanessa Vélez de Pablos, D. Markel Ormazabal Gaztañaga y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 7- EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 7- EH BILDU.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Bidebietako kultur etxeari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, martxoaren 7an, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean, Kultura, Euskara eta Turismoko zinegotzi ordezkari Insausti jaunari Bidebietako kultur etxeari buruz aurkeztutako interpelazioa dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean adierazi genuen moduan, Bidebietan kultur etxe bat sortzea auzoko bizilagunen aspaldiko eskaera bat da. Udalak berak hainbat

**II.2.2. Moción de Control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la casa de cultura de Bidebieta.**

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL derivada de interpelación al concejal delegado de Cultura Euskera y Turismo, Sr. Insausti, en la comisión de Servicios a las Personas del pasado 7 de marzo, en relación con la casa de cultura de Bidebieta.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como manifestamos en comisión, la creación de una casa de cultura en Bidebieta es una vieja demanda del vecindario del barrio.

txosten ditu horren inguruan, azkena Kultura Ekintzako zuzendariarena, 2021eko abenduaren 15ekoa.

Txosten horretan egiaztatuta geratzen da beharrezkoa dela Bidebietak kultur etxe bat izatea, kontuan hartuta auzoko populazioa eta handik gertu ez dagoela beste kultur etxerik. Horretarako, bi alternatiba proposatzen dira, dagozkien aurrekontuekin: bata, Kontadores zentroa gaitzea, mediateka institutuan kokatuta; eta, bestea, Donostiako Sustapenaren lokala erabiltzea.

Era berean, Ekialdeko Barrutiaren Azterketa eta Diagnostikoa dokumentuak, kulturari dagokionez, honako ahulezia hau agerian uzten du: "*Kultura-ekipamenduetarako sarbide gutxi Intxaurrondo Berri, Eskalantegi, Molinao eta Herrera auzoetan eta Mirakruz-Bidebieta auzo ia* osoan; auzo horretan ez dago erreferentziazko kultura-zentrorik, ez eta mota horretako *ekipamenduei lotutako zerbitzurik ere*".

Era berean, PNV-PSEren gobernu-programan puntu hau ageri da: "Kultur etxeak eta liburutegiak: direnak berritzea eta beste batzuk irekitzea: Bidebieta (Kontadores): gizarte eta kultur etxe berrirako bilakaera aktibatzea". Hau da, badirudi gobernuak 2021eko abenduko txosteneko lehen aukera hautatzen zuela.

Hala ere, martxoko batzordean, Kulturako zinegotzi ordezkariak adierazi zuen gobernuak hiriko kultur etxeen egoera aztertzeko azterlan bat egitea agindu duela, haientzako plan estrategiko bat egiteko. Analisi hori aurten amaitzea aurreikusten da.

De hecho, el propio Ayuntamiento tiene varios informes al respecto, el último del Director de Acción Cultural, de fecha 15 de diciembre de 2021.

En ese informe se acredita la necesidad de que Bidebieta cuente con una casa de cultura, dada la población y que no existe ningún otro centro cercano, proponiendo dos alternativas con sus correspondientes presupuestos: una, habilitar el centro Kontadores con mediateca en el instituto; y otra, utilizar el local de Fomento de San Sebastián.

Igualmente, el documento de Análisis y Diagnóstico del Distrito Este en relación con la cultura pone de manifiesto la siguiente debilidad: *"Escasa cobertura de acceso a equipamientos* culturales en Intxaurrondo Berri, Eskalantegi, Molinao, Herrera y prácticamente la totalidad del barrio de Miracuz-Bidebieta; en este barrio no existe Centro Cultural de referencia ni los servicios vinculados a este tipo de equipamientos ".

Asimismo, el acuerdo de gobierno PNV-PSE incluye en el apartado relativo a "Casas de cultura y bibliotecas: renovación y nuevas aperturas: Bidebieta (Kontadores), activar su evolución hacia un nuevo centro cívico y cultural". Es decir, parece que el gobierno optaba por la opción uno del informe de diciembre de 2021.

Sin embargo, en la comisión del mes de marzo, el concejal delegado de Cultura manifestó que el gobierno ha encargado la elaboración de un estudio que analice la situación de las casas de cultura de la ciudad en base al cual elaborar un plan estratégico para ellas. Un análisis que se prevé terminar

durante este año.

Hala ere, bai Kultur Ekintzako zuzendariaren txostenak, bai Ekialdeko Barrutiko Diagnostikoak agerian uzten dute kulturarako sarbidean desberdintasun nabarmena dagoela Bidebieta auzoko bizilagunentzat, bai eta Barrutiko beste eremu batzuetakoentzat ere.

No obstante, tanto el informe del Director de Acción Cultural, como el Diagnóstico del propio Distrito Este, ponen de manifiesto que hay una desigualdad evidente en el acceso a la cultura para los y las vecinas del barrio de Bidebieta así como los de otras zonas del propio Distrito.

Horregatik, uste dugu Bidebietako bizilagunek ezin dutela itxaron kultura-etxeen azterketa eta ondorengo plan estrategikoa amaitu arte; izan ere, oso litekeena da hori guztia ez amaitzea legegintzaldi hau bukatu baino lehen, eta horrek Bidebietako bizilagunak baztertuta utziko lituzke, udal-liburutegi baterako sarbiderik ere izan gabe jarraitzera.

Por ello, consideramos que el vecindario de Bidebieta no puede esperar a que finalice el análisis y el posterior plan estratégico de las casas de cultura, ya que todo eso es muy probable que no se termine durante lo que queda de legislatura, lo que relegaría a los y las vecinas de Bidebieta a seguir sin tener ni siquiera acceso a una biblioteca municipal.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio, ekitaldi hau amaitu baino lehen, Bidebietako Kontadores zentroaren bilakaera aktiba dezala, gizarte eta kultur etxe berri bihurtzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al gobierno municipal a activar la evolución de Kontadores en Bidebieta hacia un nuevo centro cívico y cultural antes de que finalice el presente ejercicio.

Arantza Gonzalez García
Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia”.

Arantza González García
Concejal del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez García andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Iñigo García Villanueva jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Arantza González García, D. ª Vanessa Vélez de Pablos, D. Markel Ormazabal Gaztañaga, D. Jon Insausti Maisterrena y D. Iñigo García Villanueva, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 7- EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 7- EH BILDU.**

---------------

**II.2.3. Kontrol Mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Bidebietako aparkaleku arazoei buruzkoa.**

